

Zadarreko arbanasiera mintzaira, kontaktuan dauden hizkuntzen isla

Maximiljana Barančić

Zadarreko Unibertsitatea / Sveučilišta u Zadru

maximilijana.barancic@zd.t-com.hr

*Itzultzailea: Claudia Torralba Rubinos**

Sarrera-data: 2017-04-03 | Onartze-data: 2017-04-28

Laburpena. Lan hau Zadarreko arbanasieraren lexikoa etimologikoki aztertze saiakera bat da. Gaur egun, albanieraren mintzaira horrek 150 eta 300 hiztun artean ditu Zadarren. Gehienak pertsona adinekoak dira, albaniarren ondorengoak, bertara Skadar lakuaren inguruko herrietatik hamazortzigarren mende amaieran iritsi zirenak. Guztira 1779 unitate lexiko aztertu dira. Corpusa 2009ko landa-azterketen emaitzetan oinarrituta dago. Azterketa horiek egiteko Goran Filipik Istriako Hizkuntzen Atlasa osatzeko prestatu zuen galdeketa jarraitu zitzaion. Analisi etimologikoak erakutsi du 1779 unitate lexikotik 598 jatorri-herrialdetik eraman zituztela, hau da, aztertutako unitate lexikoen % 33,24 albanieraren lexikotik datorrela, eta gainontzeko % 65a, berriz, behin Zadarren egonda mailegatu zituela arbanasierak. Kroazieraren eragina, ordea, Zadarreko biztanle kroaziar eta albaniarrek konpartitzen zuten marko ekonomikoak (nekazaritzak eta abeltzaintzak, nagusiki) eta kroazierak Bigarren Mundu Gerraren amaieratik gaur egunera arte izan duen garrantzi soziolinguistikoak justifika dezakete. • **Hitz gakoak:** Txakaviera, kroaziera, etimologia, italiarra, hizkuntza-kontaktuak, lexikoa, Zadarreko arbanasiera mintzaira.

Abstract. This paper offers an etymological analysis of the Zadar Arbanasi lexicon. Today, between 150 and 300 people speak the Arbanasi language in Zadar. Most of them are older people of Albanian descent whose families emigrated to Zadar from the towns located on the shores of Lake Skadar at the end of the eighteenth century. A total of 1779 lexical units were analysed. The corpus is based on the results of fieldwork carried out in 2009, which in turn used the questionnaire developed by Goran Filip to compile the Istrian Language Atlas. The etymological analysis revealed that of the 1779 lexical units, 598 were brought from the speakers' original native region. In other words, 33.24% of all the lexical units analysed come from the Albanian lexicon, while the remaining 65% are loan words added after the speakers settled in Zadar. The influence of Croatian is justified by the economic framework shared by both the Croatian and Albanian inhabitants of Zadar (mainly agriculture and livestock farming), as well as by the sociolinguistic importance of the Croatian language since the end of the Second World War. • **Key words:** Chakavian, Croatian, etymology, Italian, contact between languages, lexicon, the Zadar Arbanasi language.

* BAT aldizkariko argitalpen batzordeak eskerrak eman nahi dizkio itzultzaileari artikulua honen itzulpena egiteko izandako prestutasunagatik. Eskerrak, era berean, UPV/EHUko Letren Fakultateari, Itzulpengintza eta Interpretazioa Graduko hainbat praktika BAT aldizkariarekin egiteko hitzarmena Soziolinguistika Klusterrarekin sinatzeagatik.

SARRERA

I
Zadarreko arbanasiera mintzaira aztertzen eta babesten lagundu nahi izan dut mintzaira hori ama-hizkuntza dudalako eta bere hiztun-komunitateko kide naizelako. Esfortzu eta ezagupen pertsonalak baliatu ditut horretarako, baina, hala ere, nire prestakuntza akademiko eta profesionala ezinbestekoa izan da. Hizkuntzalari sonatu askok egin dizkiote ekarpenak Zadarreko arbanasieraren azterketari, besteak beste: Miklosich-ek, Weigand-ek, Tagliavinik, Ajetik, Krsti -ek eta Orel-ek. Dena den, argi utzi behar da hizkuntzalari horiek beren azterketak ikuspegi albanologikotik egin zituztela, eta, beraz, garrantzi gutxiago eman ziotela Zadarreko arbanasiera mintzairak hiriko beste hizkuntza batzuekin zituena kontaktuei. Ikerketa honen helburua da berriki aipatutako hutsune hori betetzea eta ikuspegi lexikotik ekarpen bat egitea Zadarreko kroato-arbanasieraren eta italo-arbanasieraren arteko kontaktuen historiari. Zadarreko arbanasiera mintzairak ondo irudikatzen du jatorri-herrialdetik fisikoki banaturik dauden Albaniako mintzairaren egoera. Horrenbestez, ukaezina da bere balio linguistiko eta etnologikoa.

Agertu bezain pronto sartu zen Zadarreko arbanasiera mintzaira garaiko Zadarreko harreman soziolinguistiko konplexuetan. Ahozko hizkuntza gisa, zatineraren (venezieraren aldaera lokala) eta txakavieraren (kroazieraren aldaera bat) menpe egon zen. Azken hori hiriko eta hiri-inguruetako biztanleek erabiltzen zuten, nahiz eta kroazieraz ere bazekiten, adibidez, estanovi komunitatekoek. Izan ere, ezinbestekoa zitzairen eguneroko komunikazioan bi hizkuntza erabiltzea beren hizkuntza-komunitate txikitik kanpo zeudenean. Ahozko hizkuntza gisa, instituzioen inolako laguntzarik gabe (ez administrazioan, ez hezkuntza-sisteman, ez elizan) Zadarreko arbanasierak ezin izan zuen inoiz asebate hiztunek zuten eredu estandarraren beharra. Aldiz, helburu instituzionaletarako italiarra eta kroaziera erabili ziren, modu ezberdinean eta garai ezberdinetan, betiere egoera politikoaren arabera. Horregatik guztiagatik, Zadarreko arbanasiarrak hasieratik egon ziren bideratuta maileguak hartzera hiriko hizkuntza-sare konplexua osatzen zuten lau hizkuntza horietatik.

Lan honek helburu bikoitza du. Alde batetik, Zadarreko arbanasiera mintzairaren azterketa sinkronikoa eskaini nahi da ikerlan honen bitartez, itemak biltzen dituen corpus formatuan eta denbora-tarte labur eta konkretuago bati dagokion galdetegi bakar bati erantzunez; horrez gain, Krsti en corpus apartarekin konparaketa ere egin nahi da, horrela hizkuntzalariaren garaiko eta hogeita batgarren mende hasierako egoeren

***Gaur egun,
albanieraren
mintzaira horrek
150 eta 300
hiztun artean
ditu Zadarren.
Gehienak
pertsona
adinekoak dira,
albaniarren
ondorengoak,
bertara Skadar
lakuaren
inguruko
herrietatik
hamazortzigarren
mende amaieran
iritsi zirenak.***

Zadarreko arbanasierak hiri horretako beste hizkuntza batzuekin maila lexikoan dituen kontaktuak erakutsi nahi dira corpusean, modu horretan jatorri-herrialdetik ekarritako eta behin xede-herrialdean egonda eremu semantiko bakoitzeko mailegatu den lexikoaren arteko ratioa eta harremana zehazteko.

arteko konparaketa egiteko. Bestetik, Zadarreko arbanasierak hiri horretako beste hizkuntza batzuekin maila lexikoan dituen kontaktuak erakutsi nahi dira corpusean, modu horretan jatorri-herrialdetik ekarritako eta behin xede-herrialdean egonda eremu semantiko bakoitzeko mailegatu den lexikoaren arteko ratioa eta harremana zehazteko.

1. AZTERKETARAKO METODOLOGIA ETA ANALISIRAKO MATERIALA

Bi teoriaren oinarriko elementuak biltzen ditu lan honen alderdi teori-koak: alde batetik, kontaktuan dauden hizkuntzen teoriarenak eta, bestetik, kontaktu bidezko dialektologiarenak. Azterketa hertsiki loturik dago kontaktuan dauden hizkuntzen teoriarekin, eta alor horretan eraginik nabarmenena izan zuena Rudolf Filipovi Kroaziako akademikoa izan zen. Bestalde, alderdi praktikoari dagokionez, gure oinarririk garrantzitsuenak Goran Filipik prestatutako galdetegiak izan dira. Ikuspegi dialektologikotik hizkuntza istrijo eta istrijo-erromanikoak aztertze-ko sortu zituen galdeketa horiek.

Antzinako Zadarreko arbanasiera mintzairaz hitz egiteko abiapuntutzat hartu ditugu Ajetiren eta Tagliaviniren deskribapena eta Krsti ren *Rječnik govora zadarskih Arbanasa* (Zadarreko arbanasiera mintzairaren hiztegia). Hala ere, zehaztu behar dugu aipatutako lan horietan guztietan Zadarreko arbasiera mintzairaren osagai albaniarra dela aztergai, eta ez Zadarreko arbanasiera mintzairak kroazierarekin, venezierarekin eta italierekin kontaktuan egoteagatik garatu dituen hizkuntzaren aspektu lexicologikoak, aspektu horiek ez baitira oraindik sakonki ikertu.

Gure materialaren iturrietako bat corpus bat izan da, zehazki, Zadarreko arbanasiera mintzairaren hiztunei Zadarren bertan egin zitzaizkien landa-azterketen emaitzetatik sortutako corpusa. Filipik proposatutako galdeketa murriztu behar izan genuen, eremu semantiko jakin batzuk, *erlezaintza eta perretxiko-laborantza*, esaterako, ez baitira Zadarreko arbanasiera mintzairaren lexikoaren parte. Beste eremu semantiko batzuk, *itsasoarekin loturiko gaiak eta itsasontziak*, adibidez, oso maila apalean agertzen dira. Ezinbestekoa izan zen azterketa etimologiko bat gauzatzea Filipiren galdetegiko eremu semantikoak kualitatiboki eta kuantitatiboki berrantolatze-ko. Azkenik, aipatutako murrizketa, aldaketa hutsal batzuk eta zenbait eremu semantikoren berrantolatzea egin ostean, hogeita bost eremu semantiko bildu genituen, edo, beste era batera esanda, mila zazpiehun eta hogeita bederatzi kontzeptu.

Filipiren galdeketarekiko bigarren ezberdintasun nagusia galdeketa hori toki gutxiagotan egitea izan da. Izan ere, Zemunik eta Plo e hirietan aspaldi utzi zioten Zadarreko arbanasiera mintzaira hitz egiteari. Horrexegatik, toki bakarrean egin da azterketa: Zadarreko Arbanasi auzoan, hain zuzen ere. Datuak biltzeko iturria adin guztietako hogeita bi pertsona izan ziren, baina horietako gehienek 60 urte baino gehiago zituzten. Nik neuk emandako erantzunak ere gehitu ziren galdetegian. Erantzunen aldaera lexiko edo fonologikoak barne hartu dira erantzunak aurkezteko dokumentuan, aldaerak zeuden kasuetan beheko aldean eta aparteko lauki batean adierazi baita esplizituki. Galderak kroazieraz egin zitzaizkien elkarriketatuei, baina beharrezkoa izan zenean, bereziki azalpen deskriptiboak egiterako orduan, Zadarreko arbanasiera mintzaira erabili genuen. Ikerketak beranduago erakutsi zuen inkestatu askok, batez ere nagusienek, ez zutela kroazierako hitz kopuru esanguratsu bat ulertzen. Petar (U i) Perovi -ek lagundu izan ez baligu, gure corpusa askoz ere murriztagoa litzateke; izan ere, ezinbesteko izan zaigu Zadarreko arbanasiera mintzairan duen hizkuntza-gaitasuna, gehien bat *ogibideak eta tresneria, mahasgintza eta abeltzaintza* eremu semantikoetan, nik neuk ezagutzen ez nituen unitate lexiko askoren esanahia azaldu baitugu. Horrez gain, oraindik ere / / fonema darabilen inkestatu bakarra da Perovi , gainontzekoek /s/ fonema erabiltzen baitute haren orde. Banaka-banaka hartu behar izan genituen hiru inkestatu, zehazki, Darijo eta Franko Bajlo anaiak eta Nado Bajlo. Hiru horiek ez dira hasierako emigranteen zuzeneko ondorengoak, baina neurri batean linguistikoki asimilatu zaizkie Kroaziako biztanleei. Orokorrean beren hiztegia nabarmenki murriztagoa da, baina txakavieratik eta italieratik hartutako mailegu gehiago dituzte.

Analisirako materialetan ez ginen sakontasunez murgildu corpusaren azterketa etimologikoan. Fidagarritzat jo genituen eskuragarri dauden hiztegi etimologikoez (albaniera, kroaziera eta italiera hizkuntzetakoak) ematen dituzten etimologiak, lexemaren jatorrira hurbiltzen direnak (*etimologia proxima*). Etimologia alde batera utzita, dialektoen hiztegiak ez zaizkigu baliagarriak izan, bereziki bi hauek: venezierarako Boerio eta Miottorena eta txakavierarako Mari i -ena, Kukljicako mintzairaren ingurukoa, mintzaira horrekin egon baitzen kontaktuan bereziki Arbanasi herria. Estanovi mintzairarentzako eta Zadar inguruan, kostaldean, hitz egiten diren txakavieraren mintzairarentzako ez dago egun hiztegirik, eta, beraz, txakavierako formak egiaztatzeko Nikola Vuleti irakasle lan-kideak bildutako datuak erabili ditugu, argitaratu gabe daudenak.

Albanieraren lexikoaren parte diren unitate guztiak, etimologia proto-albanikoari, -eslavikoari, -erromantzeari edo etimologia latinari edo

Zemunik eta Ploče hirietan aspaldi utzi zioten Zadarreko arbanasiera mintzaira hitz egiteari. Horrexegatik, toki bakarrean egin da azterketa: Zadarreko Arbanasi auzoan, hain zuzen ere.

Aloglotematzat hartu ditugu, berriz, Arbanasi herria Zadarrera iritsi eta gaur arteko denbora-tartean mailegatu direla kontsideratu ditzakegun hitzak, betiere ziurtasun handiagoz edo txikiagoz.

erromatar goiztiarrari begiratu gabe, albanieraren lexikotzat hartu ditugu. Aloglotematzat hartu ditugu, berriz, Arbanasi herria Zadarrera iritsi eta gaur arteko denbora-tartean mailegatu direla kontsideratu ditzakegun hitzak, betiere ziurtasun handiagoz edo txikiagoz. Beste ezeren gainetik *etimologia proximan* geunden interesaturik, hamazortzigarren mendetik hona kontaktuan egon diren hizkuntzen historian elementurik garrantzitsuena delako.

• Eremu semantiko baten analisi etimologikoaren adibidea:

Eguraldia:

— ‘*âkul*, ‘*âkuli m ‘izotza’*. *Geg. àkull-i*. • AD 68, s.v. *âkul*; AED 3, s.v. *akull*

— ‘*ân*, *âna f ‘ilargia’*. *Geg. hânë, from praalb. *ksand*. • AD 69, s.v. *an*; AED 146, s.v. *hënë ~ hanë*

— *arkoba’lêno m ‘ostadarra’*. *Mailegu zuzena italierako arcobaléno-tik ‘ostadarra’*. • DELI 123, s.v. *arcobaléno*

2. ALBANIERAREN LEXIKOAREN ETA BEHIN FINKATURIK EGONDA MAILEGATUTAKO LEXIKOAREN SAILKAPENA EREMU SEMANTIKOKA

Analisi etimologikoa egin eta gero, albanieraren lexikoa eta behin finkaturik egonda mailegatutako lexikoa eremu semantikoka sailkatzeari ekin genion. Eremu semantiko bakoitza albanieraren lexikoaren eta behin finkaturik egonda mailegatutako lexikoaren ehunekoaren arabera aztertu zen, eta azken hori bi azpikategoriatan banatu genuen: italo-erromatarretik (italieratik eta venezieratik) hartutako maileguak eta kroazieratik (txakavieratik eta estokavieratik) hartutako maileguak, kroazieraren erromanismoak kontuan hartuta. Azken horiek kroazierarekin kontaktuan egon direla jakin daiteke soinuaren arabera irizpidea aplikatuz. Irizpide horren garrantzia erakusten du beranduago F.Cugnok (2008) kroazieraren transfonemizazioagatik erakutsi zuen kezka, bereziki bokal itxi italo-erromatarrei dagokienez. Bukatzeko, zenbait erromanismoren kasuan oso zaila edo ezinezkoa izan da soinuaren irizpidea aplikatuz erromanismo zuzenak edo kroazieratik etorrirakoak diren zehaztea. Jatorria zehaztu ezin izan zaien unitate lexiko horientzako kategoria berezi bat sortu da, eta hogeit inguru dira guztira.

3. ZADARREKO ARBANASIERA MINTZAIRAREN ASPALDIKO DESKRIBAPENAK ETA OINARRIZKO EZAUGARRIAK

I
Zadarreko arbanasieraren lexikoaren ikerketa etimologikorik garrantzitsuena Carlo Tagliavinik burutu zuen 1937an. Lan horretan Zadarreko arbanasieraz idatzitako zenbait testutatik corpus txiki bat atera eta glosario etimologiko bat osatu zuen. Dena den, are azpimarragarriagoa da bera izan zela aloglotismo-arazoak (italieraren eta kroazieraren influentziak) agerian utzi zituen lehena. Gaur egun arte eskuragarri dagoen deskribapenik xeheena Idriz Ajetirena (1961) da. Bi ardatz nagusi ditu oinarri; lehenengoa, Zadarreko arbanasiera mintzairaren fonetika historikoa eta morfologia eta, bigarrena, Zadarreko arbanasiera mintzairaren eta beste mintzaira albaniar batzuen arteko konparaketa. Zehazki Arbanasi lurralde zaharrea, Shkodra lakuaren inguruan, *Krajina* izeneko eskualdean, zeuden mintzaira albaniarrekin konparatu zuen Zadarreko arbanasiera mintzaira. 1987an Kruno Krsti albaniarrak *Rječnik govora zadarskih Arbanasa* argitaratu zuen, orain arte dagoen lexiko-bilketarik garrantzitsuena. Horren ostean ez dago Zadarreko arbanasiera mintzairaren inguruko lan aipagarrik. Orelek Zadarreko arbanasierari buruzko AED delako lana (1996) egiteko Tagliaviniren materialak erabili zituen atal gehienetan.

1929ko uda amaieran, Ugo Pellisek inkesta bat egin zuen arbanasieraz *Atlante Linguistico Italiano* aldizkariarentzat, eta horretarako galdeketaren bertsio murriztago bat erabili zuen, 775 galderakoa. Gaur egun oraindik ez da osorik argitaratu, baina bai zati bat, eta oso baliotsua izan zaigu. Federica Cugnok argitaratu zuen zati hori 2008an. 2008ko *Atlasi Dialettologjik i gjuhës shqipe* lanaren egileek Ajetiren datuak erabiltzea erabaki zuten Cugnok berak (2008) onartu duenez, eta ez zuten beste landa-azterketarik egin. Zoritzarrez, lan hori ezin izan dugu baliatu. Zadarreko arbanasiera mintzairari buruzko lan zaharragoak mintzaira horren bila-kaera historikoan zentratzen dira, bai Tagliavini eta Ajetiren lan zehatzak, bai Krsti en hiztegiaren lehen orrialde kontsultaerazak (Krsti 1987: 13-20) eta baita F. Cugnoren lana (2008) ere. Oraindik ez dago Zadarreko arbanasiera mintzairaren sistema fonologikoa oinarri duen deskribapen sinkroniko zehatzik, ez ikuspegi estrukturalistatik, ez hizkuntzalaritza-eskola modernoagoen ikuspegitik. Ajeti izan zen Zadarreko arbanasiera mintzairaren inbentario fonologikora gehien gerturatu zena (1961: 103-123), baina interes handiagoa erakutsi zuen diakronian deskribapen sinkronikoan baino, bere lanaren izenburuak argi uzten duenez.

**Zadarreko
arbanasieraren
lexikoaren
ikerketa
etimologikorik
garrantzitsuena
Carlo Tagliavinik
burutu zuen
1937an. Lan
horretan
Zadarreko
arbanasieraz
idatzitako
zenbait testutatik
corpus txiki bat
atera eta glosario
etimologiko bat
osatu zuen.**

Bildutako corpusean oinarrituz, Zadarreko arbanasiera mintzaira garaikidearen fonologiari buruzko informazio gehiago ematen saiatu gara. Corpora osatzeko egindako galdetegiaren nolakotasunagatik, ez dugu aukerarik izan morfologiaz eta bereziki sintaxiaz Ajetik (1961: 123-148) eta Krsti ek (1987: 15-20) egindako ekarpenei ezer gehitzeko. Izan ere, kontuan hartu behar da Filipiren galdetegia teorikoki antolatuta dagoela kontaktuan dauden hizkuntzen lexikoa aztertzeko. Intonazioari dago-kionez, Krsti ek (1987: 22) esan zuen kasu guztietan goitik beherakoa dela. Hala ere, sarritan aurki daitezke gorako intonazioa duten bokal lu-zeak kasu zehatzetan, eta hori kroazieraren influentziaren ondorio izan daiteke. Fenomeno hori bereziki ohikoa da izen maskulinoekin. Gure corpusaren emaitzetatik ondorioztatu ahal izan dugu Zadarreko arbanasiera mintzaira garaikideak zazpi fonema bokaliko dituela: hiru aurreko bokal ireki, beheko /a/, erdiko /e/ eta goiko /i/, eta goiko eta atzeko bokal itxi bat. Jada Ajetik ohartarazi zuen (1961: 104), Tagliavinik esanda-koari kritika eginez, bokal horiek luzeak zein motzak izan daitezkeela, / / salbu, beste mintzaira albaniar batzuetan gertatzen den bezala. Ikus-pegi diakronikotik garrantzitsua da aipatzea / / luzea kasu askotan / / bihurtu dela, esaterako /'brâda/ > /'brôda/ kasuan. Hala ere, /o/ hori gaur egun ez da hain luzea. Oso sarritan bi aukerak egoten dira: /bu'lâri/, /bu'lôri/, /'brâjda/, /'brôjda/, /gu'âri/, /gu'sôri/, /'k'âpci/, /kôpku/, /li'vâda/, /li'vôda/. Horiez guztiez gain, badaude bokalen beste aldaera batzuk ere. Aldaketa horrek ez die maileguei soilik eragiten, albanieratik jasotako lexikoari ere eragiten dio, eta hori kroazieraren eraginagatik ger-tatzen da, Cugnoren arabera (2008: 23): (e/- /i/: /pete'rôšo/ - /peti'rôši/; /e/ - /o/: /peve'rûni/ - /pove'rûni/; / / - /u/: /r'lûca/ - /ur'lûca/, /v'nêšta/ - /vu'nêšta/; / / - /ü/: /'mb l/ - /mbül/; /o/ - /u/: /a'góšti/ - /a'gúšti/, /pan'tófole/ - /pan'tófule/.

Hala ere, gure corpusaren emaitzek erakusten dute egungo arbanasie-raren hiztunek bi eretara ahoskatzen dituztela atzizki infinitiboak, baina izenen kasuan [uo]¹ diptongoa erabiltzen dutela gehienetan. / / fonema, kroazieran ezin aurki daitekeena, inkestatu bakarrak erabiltzen du, Petar U i Perovi ek, hain zuzen.

Bokalekin gertatzen den bezala, kontsonanteen aldaerak bi arrazoigatik eman daitezke: batzuk, zalantzarik gabe, kontaktuan dauden hizkuntzen ondorio dira, baina, hala ere, beste batzuk barne-garapenagatik dute aldaera bat baino gehiago: /b/ - /v/: /ba'pôr/ - /va'pôr/; /b/ - /p/: /ben'ûrea/ - /pen'ûrea/; /c/ - /dz/: /brun'cîni/ - /brun'dzîni/; /c/ and /s/: /'klêpci/ - /'klêpsi/; /j/ - / /: /dim'jôku/ - /dim'ôku/; /g/ - /k/: /g s'küje/ - /k s'küje/, /g r'êle/ - /k r'êle/.

4. LEXIKOAK ZADARREKO ARBANASIERA MINTZAIRAREN AZTERKETA BERRIENETAN HARTU DUEN TOKIA

I

Zadarreko arbanasiera mintzairaren lexikoa aztertzeke lehen saiakera esanguratsua Carlo Tagliaviniri² zor diogu. 1937an egin zuen ikerketan, fonetikaren eta morfologiaren inguruko hasierako oharrez gain, Zadarreko arbanasiera mintzaira errearen glosario etimologiko txiki bat osatu zuela esan daiteke, eta baita kontaktuan dauden hizkuntzek lexikoan duten islaren analisia ere egin zuela. *A posteriori* Tagliavinik irizpide baliagarri bat utzi digu Zadarreko arbanasiera mintzairan sartu diren lexema aloglotikoak determinatzeko horiek aditzak direnean.

Tagliavinik behar bezala eta zientifikoki aztertu zuen bildutako lexikoa bere lanaren atalik garrantzitsuenean. Bertan, argi utzi zuen veneto-erromatarretik hartutako maileguetako batzuk Zadarreko arbanasiera mintzairan eta kroazieran ere existitzen zirela, eta, horrez gain, kroazieraren erromanismo zahar batzuk ere identifikatu zituen. Hala ere, kroazieraren eraginaren garrantzia ez zen jarri agerian 2008ra arte, Federica Cugno hizkuntzalari italiarrak Ugo Pellisek *Atlante Linguistico Italiano* aldizkariarentzat arbanasieraz egindako inkestari buruzko lana argitaratu zuen arte. Argi dago Cugnok 1929ko corpusa baliatuz Zadarreko arbanasieraren lexikoan aurki daitezkeen eragin aloglotikoak noraino iristen diren zehazten saiatu zela. Horretarako, Zadarreko arbanasierak hiriko beste hizkuntza batzuekin izandako kontaktuari garrantzia emateaz gain, lehenagoko hizkuntza kroato-erromatarrekin izandako kontaktuari ere garrantzia eman zion. Cugnok Zadarreko mapa linguistikoari buruz zeukan informazioa bi mundu gerren arteko denbora-tarteari dagokio. Garai hartan derrigorrez inposatu zen italianizazioa eta kroaziera desagerrarazteko saiakera egin zuten, baina, hala ere, Cugnok eskuragarri izan zituen garai hartan hiriaren iragan linguistikoari buruz egindako inkesta subertsibo batzuk. Pelliren corpusa oraindik ez da argitaratu, eta, beraz, gure corpus garaikidearen funtziorik garrantzitsuena Cugnok identifikatutako fenomeno hori dokumentatzea eta azaltzea da.

Are garrantzitsuagoa da oraindik gure corpusa, izan ere, gaur egun arte dagoen Zadarreko arbanasiera mintzairaren erreperitorioik aberatsenak, Krsti enak, ia sistematikoki bazterten ditu autoreak aspaldikotzat jotzen ez dituen aloglotema guztiak. Egia esan, Zadarreko arbanasiera mintzairak duen benetako hiztegi bakarra da. Krsti ek ez zuen

Kroazieraren eraginaren garrantzia ez zen jarri agerian 2008ra arte, Federica Cugno hizkuntzalari italiarrak Ugo Pellisek *Atlante Linguistico Italiano* aldizkariarentzat arbanasieraz egindako inkestari buruzko lana argitaratu zuen arte.

**Dena den,
Zadarreko
arbanasiera
mintzairak ere
beste hizkuntza
estandar eta
prestigiotsuen
presioa jasan
zuen, eta
ondorioz, indarra
galduz joan zen
apurka-apurka,
baita Arbanasi
auzoan ere.**

Zadarreko arbanasieraren lexikoa albanizatzeke asmorik, are gehiago, nahita txertatu zituen arkaismoak bere hiztegien, bildu zituen hitz gehienak bere amarengandik jaso zituelako eta “[...] hiztegien [...] gaur egun seguruenik [hiztun] komunitatean inork erabiltzen ez dituen hitzak daude[lako]” (*loc. cit.*).

5. ZADARREKO ARBANASIERA MINTZAIRAK ZADARREKO BESTE HIZKUNTZA BATZUEKIN IZANDAKO KONTAKTUAK: TESTUINGURU SOZIOLINGUISTIKOA

I
Zemunik eta Plo e hirietan kokatu ziren albanierako hiztunek berehala ahaztu zuten beren hizkuntza. Dena den, Zadarreko arbanasiera mintzairak ere beste hizkuntza estandar eta prestigiotsuen presioa jasan zuen, eta ondorioz, indarra galduz joan zen apurka-apurka, baita Arbanasi auzoan ere. Zadarreko arbanasiera mintzairak ez zuen inolako babesik jaso erakundeengandik, eta horregatik gaur egun, beste ezer baino lehen, etxeko testuinguruan erabiltzeko hizkuntzatzat dute bere hiztunek. Zentzu horretan Zadarreko arbanasiera mintzairak ikuspegi soziolinguistikotik hartzen duen tokia A. Kova ec-ek XX. mendeko 60ko hamarkadan egin zituen landa-ikerketan istrio-errumaniarrak zuen tokiarekin konpara daiteke. Arbanasi auzoko familiak, faktore sozio-ekonomiko indibidualen arabera, hizkuntza-kontaktu dinamika ezberdinetan murgildu ziren, batez ere Borgo Erizzo Zadarreko auzo gisa funtzionatzen hasi eta gero. Are gehiago, garrantzitsua da azpimarratzea familia bakoitzak Zadarreko arbanasieraren eta Zadarreko beste hizkuntzen arteko kontaktua modu ezberdinean bizi izan zuela, nahiz eta komunitate osoak jasan zuen influentzia maila aloglotikoan. Hala demostratzen du gure corpusak; izan ere, aldaera kopuru adierazgarria bildu du, ez bakarrik maila fonologikoan, baita maila lexikoko elementu zehatz batzuekin ere, eta begi bistakoa da familia bakoitzak aldaeretako bat erabiltzen duela. Mendek pasa ahala, Zadarreko arbanasiera mintzairaren diskurtsoan mota guztietako aldaketak gertatuz joan dira: aldaketa fonologikoak, morfologikoak, sintaktikoak eta lexikoak. Hala ere, okerra litzateke pentsatzea aldaketa horiek orduan eta gaur egunera arte “hizkuntza nagusiagoen prestigioagatik” soilik gertatu direla. Lexikoa mailegatzeko orduan bereziki, beste hainbat faktore hartu behar dira kontuan, besteak beste: ezaugarri ezberdinak dituen beste ingurugiro batean bizitzea, jarduera berriak burutzea, edo lehengo jarduera berak badira ere, testuinguru zeharo ezberdin batean egin beharra eta baita kultur ondare berria berenganatzea ere. Laburbilduz, hiztunek

errealitate berri bati egin behar izan zioten aurre, izan ere, kokatzeko aukeratu zuten lurraldeak bazuen jada bere hizkuntza-sistema propioa, eta heldu berriek sistema horretara egokitu behar izan zuten.

6. POLIMORFISMOA ETA SINONIMIA KONTAKTUAN DAUDEN HIZKUNTZEN ONDORIO GISA

Ikertutako sinonimo kopuruak oso ongi erakusten du kontaktuan egondako hizkuntzen arteko harreman sakona; alde batetik, Zadarreko arbanasiera mintzaira dugu, eta, bestetik, kroaziera, zaratinerara eta italiara. Ikerketatik ondorioztatu genuen Zadarreko arbanasiera mintzairan kontzeptu zehatz batzuei erreferentzia egiteko bi sinonimo edo gehiago erabiltzen dituztela. Batzuetan, nahiz eta beren arbasoek jatorri-lurraldetik ekarritako hitza ezagutu, nahiago izaten dute mailegua erabili egoeraren eta giroaren arabera. Oso fenomeno arraroa da, munduan dagoen bakarrenetakoa, izan ere, ez da arrunta hiztun bakar batek kontzeptu bera izendatzeko sei sinonimo ezagutzea.

Gure ikerketa-lanean Zadarreko arbanasiera mintzairako formaa urrean jarri dugu, aurkitu dugunean, eta gero maileguak, ordena alfabetikoan.

Hona hemen aztertutako hainbat sinonimoren adibideak:

- **Zadarreko arbanasiera mintzairan bi aldaera dituztenak:**
 - adabaki: *’ârna, pêca*
 - aste: *’jâva, šeti’ mâna*
- **Zadarreko arbanasiera mintzairan hiru aldaera dituztenak:**
 - txingor: *’brêšni, ’krûpa, ’túča*
- **Zadarreko arbanasiera mintzairan lau aldaera dituztenak:**
 - haitz: *’kârma, mo’cîra, ’grôta, ’škrâpa*
- **Zadarreko arbanasiera mintzairan bost aldaera dituztenak:**
 - barraskilo: *kara’kôči, kara’gûci, ba’lôvci, lu’ mâka, ’prôvci*
- **Zadarreko arbanasiera mintzairan sei aldaera dituztenak:**
 - oldartsu (zaldi): *’drêčit, ’zjârmit, ’bîsno, ’pâprenno, ušti’ nâtum, žes’ tóko*

Gure corpusean Zadarreko arbanasiera mintzairaren 680 aldaera bildu ditugu guztira: bi esanahi dituzten 215 lexema daude, edo beste era batera esanda, 430 aldaera edo osotasunaren % 63; hiru esanahi dituzten lexemak 66 dira, beraz, 198 aldaera edo osotasunaren % 30; lau esanahi dituztenak, berriz, 9 lexema, 36 aldaera edo % 5 dira; bost esanahidun bi lexema daude, eta 10 aldaera edo % 1,4 suposatzen dute; azkenik, lexema bakarra dago sei esanahi dituen, eta gainontzeko 6 aldaerak eta % 0,6a hartzen ditu.

Arbanasi auzoko familiak, faktore sozio-ekonomiko indibidualen arabera, hizkuntza-kontaktu dinamika ezberdinetan murgildu ziren, batez ere Borgo Erizzo Zadarreko auzo gisa funtzionatzen hasi eta gero.

Zadarreko arbanasiera mintzairak hasiera-hasieratik mailegatu zituen hitzak kroazieraren lexikotik. Mailegatze hori bikoitza dela argudiatu dezakegu: alde batetik, mailegatze kulturala da, izan ere, hizkuntzaz gain, lurralde berria eta bertako ezaugarri eta jarduerak ere berenganatu zituzten; bestetik, barne-mailegatze bat ere bada, Zadarren elebiduntasuna oso sustraiturik baitago.

ONDORIOAK

I

Zadarreko arbanasiera mintzairak hasiera-hasieratik mailegatu zituen hitzak kroazieraren lexikotik. Mailegatze hori bikoitza dela argudiatu dezakegu: alde batetik, mailegatze kulturala da, izan ere, hizkuntzaz gain, lurralde berria eta bertako ezaugarri eta jarduerak ere berenganatu zituzten; bestetik, barne-mailegatze bat ere bada, Zadarren elebiduntasuna oso sustraiturik baitago. Elebiduntasun horri esker eramaten zuten aurrera antzina hiriko jarduera ekonomikoa, batzuek kroazieraz eta beste batzuek albanieraz hitz egiten baitzuten. Arbanasi herriko biztanleak modu naturalean joan ziren hiri-inguruetakoa auzoetara. Egun, oraindik ere bertan bizi dira kukljica komunitateko biztanleak, eta neurri batean bada ere, txakaviera mintzaira mantentzen dute estanovieraren gainetik. Kukljica herriko biztanleak arbanasi herrikoengandik gertuen zeuden auzokoak ziren, Punta Bajlon zeudenak, eta hein batean albaniartu ziren.

Argi dago arbanasi komunitatea Zadarren kokatu zen garaian eta Bigarren Mundu Gerraren amaierara arte, zaratineraz eta italiaraz oso hizkuntza prestigiotsuak izan zirela kroazierarekin batera Zadar hirian. Kroazieraren presentzia eta eragina suspertze-garaian indartu ziren, baina zaratineraz eta italiaraz, ahozko eta kultur hizkuntza gisa, hurrenez hurren, bereziki ospetsuak izan ziren inposaturiko italiaartze garaian, bi mundu gerren artean. Egoera hori ikusita, uste dugu Zadarreko arbanasierak lexiko italo-erromatarra bereganatu izana beste ezer baino lehen mailegu kulturala dela. Hipotesi horren alde egiten dute eremu semantiko jakin batzuetan (gastronomia, ezkontza eta familia-bizitza) italiaraz eta venezieraz zuzenean hartutako maileguek, baina, hala ere, argi dago barne-maileguen adibideak ezin direla baztertu.

Egungo egoera soziolinguistikoa txakaviera ez da jada hirian gehien hitz egiten den hizkuntzetako bat, baina bada modu zehatzean definiturik ez dagoen kroazieraren Zadarreko aldaera. Horrez gain, Zadarreko biztanleek aldaera estandar bakarrean asebate ditzakete beren hizkuntza-beharrak, zehazki, kroaziera estandarrean. Bi datu horiek esanguratsuak dira bildutako corpusa interpretatzerako orduan. Gaur egun Zadarreko arbanasiera mintzaira eta zaratineraz barne-sentimenduek bultzatuta erabiltzen dira egoera komunikatiboetan, sarritan belaunaldi ezberdinen arteko komunikaziorako, eta ez belaunaldi edo familia bereko kideen artean.

Zadarreko arbanasierari buruzko ikerketek ia bi hamarkadako etena izan eta gero, lan honen bitartez kroato-arbanasiera eta italo-arbanasiera

hizkuntzek maila lexikoan izan duten kontaktuari buruzko azterketari ekarpen bat egiten saiatu gara, eta, aldi berean, espero dugu gure lanak Zadarreko arbanasiera mintzaira babesten laguntzea. ●

OHARRAK

1. Usp. i Ajeti 1061: 106.
2. Tagliavini 1934 eta 1937.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- AD = Tagliavini, Carlo (1937). *L'albanese di Dalmazia. Contributi alla conoscenza del dialetto ghego di Borgo Erizzo presso Zara*. Firenze: Olschki.
- AED = Orel, Vladimir (1998). *Albanian Ethymological Dictionary*. Leiden: Brill.
- Ajeti, Idriz (1961). *Istorijski razvitak gegijskog govora Arbanasa kod Zadra*. Sarajevo: Akademija nauka Bosne i hercegovine [Djela XVI, knj. 3].
- Ajeti, Idriz (1961). Sitni etimološki prilozi, in *Godišnjak Centra za balkanološka istraživanja* 2. (195-198. or.).
- Ani, Vladimir (1991). *Rječnik hrvatskoga jezika*. Zagreb: Novi Liber.
- Ani, Vladimir / Goldstein, Ivo (2000). *Rječnik stranih riječi*. Zagreb: Novi Liber.
- Aronoff, Mark / Rees-Miller, Janie (2000). *The Handbook of Linguistics*. Oxford / Malden, Mass.: Blackwell.
- Babi, Stjepan (1991). *Tvorba riječi u hrvatskom književnom jeziku: nacrt za gramatiku* (2. izdanje). Zagreb: Nakladni zavod Globus / HAZU.
- Baran, i, Maximiljana (2008). Arbanasi i etnojezi ni identitet, in *Croatica et Slavica Iadertina* IV. (551-568. or.).
- Bari, Henrik (1937). *O uzajamnim odnosima balkanskih jezika I. Ilirsko-romanska jezička grupa*. Beograd: Arbanološki seminar Univerziteta.
- Bari, Henrik (1950). *Fjalor i gjuhës sërbishte ose kroatishthe dhe i shqipes / Rečnik srpskoga ili hrvatskoga i arbanaskoga jezika*. Zagreb: Izdava ki zavod Jugoslavenske akademije.
- Berko-Gleason, Jean (1993). *The Development of Language*. New York: MacMillan Publishing Co.
- Boerio = Boerio, Giuseppe (1856). *Dizionario del dialetto veneziano*. Giovanni Cecchini Editore, Venezia [Ristampa anastatica Giunti Martello, Firenze, 1983].
- Buzoli, Stjepan (1868). Zadarski Arbanasi i prabiskup Zmajevi, in *Narodni koledar* 6. (76-84. or.).
- Çabej, Eqrem (1976). *Studime etimologjike në fushë të shqipes*, sv. I-III. Tiranë: Akademia e shkencave e RPS të Sqipërisë.

Egungo egoera soziolinguistikoan txakaviera ez da jada hirian gehien hitz egiten den hizkuntzetako bat, baina bada modu zehatzean definiturik ez dagoen kroazieraren Zadarreko aldaera. Horrez gain, Zadarreko biztanleek aldaera estandar bakarrean asebate ditzakete beren hizkuntza-beharrak, zehazki, kroaziera estandarrean. Bi datu horiek esanguratsuak dira bildutako corpusa interpretatzerako orduan.

- Chomsky, Noam (2002). *On Nature and Language*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Comrie, Bernard (2000). Language contact, lexical borrowing, and semantic fields, in Gilbers, Dicky / Nerbonne, John / Schaeken, Jos (eds.): *Languages in Contact*. Amsterdam: Rodopi (73-86. or).
- Coulmas, Florian (1998). *The Handbook of Sociolinguistics*. Oxford / Malden, Mass.: Blackwell.
- Crystal, David (2000). *Language Death*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Cugno, Federica (2008). La varietà albanese di Borgo Èrizzo in Dalmazia nell'inchiesta di Ugo Pellis per l'Atlante Linguistico Italiano, in *Bollettino dell'atlante linguistico italiano*, 32 (15-35. or).
- urkovi, Mijo (1922). *Povijest Arbanasa kod Zadra*. Šibenik: Nagr. tiskara E. Vitaliani.
- DEI = Battisti, Carlo / Alessio, Giovanni (1950-1957). *Dizionario etimologico italiano*, sv. I-V. Firenze: Università degli Studi di Firenze – G. Barberà Editore.
- DELI = Cortelazzo, Manlio / Zolli, Paolo (1979-1988). *Dizionario etimologico della lingua italiana*, sv. I-V. Bologna: Zanichelli.
- Demiraj, Bardhyl (1997). *Albanische Etymologien*. Amsterdam / Atlanta: Rodopi.
- Doria = Doria, Mario (1991). *Grande dizionario del dialetto triestino storico etimologico fraseologico*. Trieste: Trieste Oggi.
- Erber, Tullio (1883). *La colonia albanese di Borgo Erizzo presso Zara. Cenni storici raccolti dai documenti del .R. Archivio Luogotenenziale*. Ragusa: Tipografia Flori.
- ERSHJ = Skok, Petar (1971-1974). *Etimologijski rječnik hrvatskog ili srpskog jezika* (ur. M. Deanovi i Lj. Jonke), sv. I-IV. Zagreb: JAZU.
- Filipi, Goran (2007). *Istrorumunjske etimologije: ornitonimi. Knjiga 2*. Pula-Koper : Znanstvena udruga Mediteran.
- Filipovi, Rudolf (1986). *Teorija jezika u kontaktu: uvod u lingvistik u jezičnih dodira*, Zagreb: Jugoslavenska akademija znanosti i umjetnosti / Školska knjiga [Djela JAZU; Razred za filološke znanosti; knj. 59. – 322. or.].
- Gjinari, Jordji (1970). *Dialektologija Shqiptare*. Pristina: Universiteti.
- Goebel, Hans et alii (eds.) (1996). *Kontaktlinguistik: ein internationales Handbuch zeitgenössischer Forschung / Contact linguistics: an international handbook of contemporary research / Linguistique de contact: manuel international des recherches contemporaines*. Berlin/New York: Walter de Gruyter.
- Grosjean, François (1982). *Life with Two Languages*. Harvard: Harvard University Press.

- Grosjean, François (1985). The Bilingual as a Competent but Specific Speaker-hearer, in *Journal of Multilingual and Multicultural Development* 6. (467-479. or).
- Grzega, Joachim (2003). Borrowing as a Word-Finding Process in Cognitive Historical Onomasiology, in *Onomasiology Online* 4 (22-42. or.).
- Guerra, Paola / Spagnoli, Alberto (2006). *Dizionario italiano albanese - albanese italiano*. Milano Antonio Vallardi Editore.
- Hamers, Josiane F. / Blanc, Michael H. A. (1990). *Bilingualism and Bilingualism*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Haugen, Einar (1950). The Analysis of Linguistic Borrowing, in *Language* 26/2. (210-231. or.).
- Hrvatski enciklopedijski rječnik* (2003). Zagreb: Novi Liber.
- ILA = Filipi, Goran / Burši Giudici, Barbara (1998). *Istriotski lingvistički atlas*. Pula: Znanstvena udruga Mediteran.
- ImLa = Filipi, Goran / Burši Giudici, Barbara (2012). *Istromletački lingvistički atlas*. Zagreb / Pula: Dominovi / Znanstvena udruga Mediteran / Sveu ilište Jurja Dobrile u Puli.
- IO = Filipi, Goran (1994). *Istarska ornitonimija: etimologijski rječnik pučkog naziolja*. Rijeka: Izdava ki centar Rijeka.
- IrE II = Filipi, Goran (2007). *Istrorumunjske etimologije: ornitonimi. Knjiga 2*. Pula-Koper: Znanstvena udruga Mediteran.
- IrE III = Filipi, Goran (2008). *Istrorumunjske etimologije: zoonimi: poljske i šumske životinje; mikonimi; bačvarska terminologija. Knjiga 3*. Pula-Koper: Znanstvena udruga Mediteran.
- IrLA = Filipi, Goran (2004). *Istrorumunjski lingvistički atlas*. Pula: Znanstvena udruga Mediteran.
- JaFa = Vinja, Vojmir (1986). *Jadranska fauna. Etimologija i struktura naziva*, sv. I-II. Zagreb / Split: JAZU / Logos.
- JE = Vinja, Vojmir (1998–2004). *Jadranske etimologije. Jadranske dopune Skokovu etimologijskom rječniku* sv. I–III. Zagreb: HAZU / Školska knjiga.
- Jokl, Norbert (1911). *Studien zur albanesischen Etymologie und Wortbildung*. Wien: A. Hölder.
- Karuc, Niko (1985). *O zadarским Arbanasima*. Zadar: Mjesna zajednica Arbanasi.
- Kova ec, August (2006). Arbanasi-Albanisch, in Okuka, Miloš (Hrgb.): *Lexikon der Sprachen des Europäischen Ostens*. Klagenfurt: Wieser. (67-70. or.).
- Krsti , Kruno (1987). *Rječnik govora zadarških Arbanasa*. Zadar: Mjesna zajednica Arbanasi.
- Krsti , Kruno (1988). *Doseljenje Arbanasa u Zadar*. Zadar: Mjesna zajednica Arbanasi.

- Landi, Addolorata (1989). *Gli elementi latini nella lingua albanese*. Napoli: Edizioni Scientifiche Italiane / Pubblicazioni dell'Università degli Studi di Salerno.
- Lewis, M. Paul. (2001). Language Development in Contact Languages and Language Contact Situations, in *Notes on Sociolinguistics* 6 (65-76. or).
- Markovi , Irena (2013). *Usporedba Pellisove istočno-jadranske građe za ALI sa suvremenim mletacizmima u zadarskom govoru*. Doktorska disertacija (neobjavljena).
- Martinet, André (1982). *Osnove opće lingvistike*. Zagreb: GZH.
- Mezuli , Hrvoje / Jeli , Roman (2005). *O talijanskoj upravi u Istri i Dalmaciji 1918.-1943. Nasilno potalijančivanje prezimena, imena i mjesta*. Zagreb: Dom i svijet.
- Meyer = Meyer, Gustav (1891): *Etymologisches Wörterbuch der albanesischen Sprache*. Straßburg: Trübner.
- Meyer, Gustav (1883). Albanesische Studien I. Die Pluralbildung der Albanesische Nomina, in *Sitzungsberichte der philosophischen-historischen Classe der Kaiserlichen Akademie der Wissenschaften CIV*. (257-362. or.).
- Meyer, Gustav (1884). Albanesische Studien II. Die albanesischen Zahlwörter, in *Sitzungsberichte der philosophischen-historischen Classe der Kaiserlichen Akademie der Wissenschaften CVII*. (259-338. or.).
- Meyer, Gustav (1892). Albanesische Studien III. Lautlehre des indogermanischen Bestandteile des Albanesischen, in *Sitzungsberichte der philosophischen-historischen Classe der Kaiserlichen Akademie der Wissenschaften CXXV/11*. (1-93. or.).
- Meyer-Lübke, Wilhelm (1935). *Romanisches etymologisches Wörterbuch*. 3 Auflage. Heidelberg: Carl Winters Universitätsbuchhandlung.
- Miklosich, Franz (1870-1871). *Albanische Forschungen*, Bde. I-III, Wien: Kaiserliche Akademie der Wissenschaften.
- Mohorovi i -Mari in, Franjo (2001). *Rječnik čakavskog govora Rukavca i bliže okolice*. Rijeka – Opatija – Matulji.
- Mulja i , Željko (1972). *Opća fonologija i fonologija suvremenoga talijanskog jezika*. Zagreb: Školska knjiga.
- Pedersen, Holger (1895). *Albanesische Texte mit Glossar*. Leipzig: S. Hirzel.
- Pellegrini, Giovanni Battista (1977). *Introduzione allo studio della lingua albanese*. Padova: Istituto di glottologia – Seminario di filologia balcanica.
- Peri i , Šime (1993). *Pregled gospodarstva Arbanasa u prošlosti*. Zadar: Mjesna zajednica Arbanasi.
- Peri i , Šime (2011). "Povijest Zadra u XIX. stolje u". Peri i , Šime / Stagli i , Marija / Travirka, Antun / Rados, Zvezdana / Rabac- ondri , Glorija:

- Zadar za austrijske uprave. Zadar: Matica Hrvatska – Ogranak u Zadru [Prošlost Zadra, knjiga IV]. (13-257. or.).
- RGMK = Mari i Kuklji anin, Tomislav (2000). *Rječnik govora mjesta Kukljica na otoku Ugljanu.*, Zadar, Matica hrvatska Zadar.
- RGOO = Val i , Ante Toni (2012): *Rječnik govora otoka Ošljaka*, Zadar: Matica hrvatska – Ogranak Zadar.
- Sala, Marius (1998). *Lenguas en contacto*. Madrid: Gredos.
- Simeon, Rikard (1969). *Enciklopedijski rječnik lingvističkih naziva*, sv. I-II. Zagreb: Matica Hrvatska.
- Skra i , Vladimir (1996). *Toponimija vanjskog i srednjeg niza zadarskih otoka*, Split.
- Skra i , Vladimir (ur.) (2006). *Toponimija otoka Pašmana*, Sveu ilište u Zadru, Centar za onomasti ka istraživanja, Zadar. (117-122.or.).
- So anac, Lelija (2004). *Hrvatsko-talijanski jezični dodiri*. Zagreb: Nakladni zavod globus.
- Stip evi , Aleksandar (2011). *Tradicijska kultura zadarskih Arbanasa*. Zagreb: Ibis grafika d.o.o.
- Tagiavini, Carlo (1934). Penetrazione e adattamento delle voci italiane e croate nel dialetto albanese di Borgo Erizzo (Zara), in *Studi albanesi* III-IV. (214-242. or.).
- Tagliavini, Carlo (1965 [1943]). *Stratificazione del lessico albanese. Elementi indoeuropei*. Bologna: Pàtron [Ristampa anastatica].
- Thomason, Sarah (2001). *Language Contact: An Introduction*. Edinburgh: Edinburgh University Press.
- Topalli, Kolec (2006). Për kronologjinë e disa dukurive fonetike në të folmen e arbëneshëve të Zarës, in *Studime Filologjike* 3-4. (133-141.or.).
- Trask, Lawrence Robert (2005). *Temeljni lingvistički pojmovi*. Zagreb: Školska knjiga.
- VDVD = Miotto, Luigi (1984). *Vocabolario del Dialetto Veneto-Dalmata. Seconda edizione riveduta e ampliata*. Trieste: Edizioni LINT.
- VG = Rosamani, Enrico (1999). *Vocabolario giuliano dei dialetti parlati nella Venezia Giulia, in Istria, in Dalmazia, a Grado e nel Monfalconese. Seconda edizione*. Trieste: Edizioni LINT.
- Wardhaugh, Ronald (2002). *An Introduction to Sociolinguistics*. Oxford: Blackwell Publishing.
- Wei, Li (2000). *The Bilingualism Reader*. London: Routledge.
- Weigand, Gustav (1911). Der gegische Dialekt von Borgo Erizzo in Dalmatien, in *Jahresbericht des Instituts für rumänische Sprache* XVII-XVIII. (177-239. or.).
- Weigand, Gustav (1913). *Albanesische Grammatik im südgegischen Dialekt*. Leipzig: Johann Ambrosius Bath.